

EZ DOKERO

Egilea

PATXO TELLERIA

Zuzendaria

JOKIN OREGI

TARTEAN TEATROA



Aktoreak

MIKEL MARTÍNEZ

PATXO TELLERIA



EZ DOK ERO

TARTEAN TEATROA

“Euskal kultura, euskal antzerkia eta euskal gizartearen irudi deformatua, barregarria eta aluzinatua.
Euskal Antzerkiaren “road movie” eroa.

Fitxa artistikoa

Egilea: Patxo Telleria

Zuzendaria: Jokin Oregi

Aktoreak: Mikel Martinez eta Patxo Telleria

Musika egilea: Adrian Garcia de los Ojos

Diseinu grafikoa eta bideoa: Naiel Ibarrola

Argiztapena: David Rodriguez

Jantzigintza: Nati Ortiz de Zarate

Eszenografia eraikuntza: Collider Film solutions. Koop

Produkzio exekutiboa: Pio Ortiz de Pinedo eta Myriam Garzia

Banaketa eta Komunikazioa: Myriam Garzia

Ekoizpena: **Tartean Teatroa**

Koprodukzioa: **Basauriko Social Antzokia**

Kontaktoa: tartean@tartean.eus edota 688 617 712 telefonoan

FB: facebook.com/TARTEANteatro/ Twitter: [@TARTEANteatro](https://twitter.com/TARTEANteatro)

Instagram: [@tarteanteatro](https://instagram.com/tarteanteatro) Web: www.tartean.eus

EZ DOK ERO (2020)

“Euskal herriko antzoki batean, zeinaren izena ez dudan gogoratu nahi...”

Euskal kultura, euskal antzerkia eta euskal gizartearen irudi deformatua, barregarria eta aluzinatua.

Euskal Antzerkiaren “road movie” eroa.

Literatura unibertsaleko arketipo ezagunenera joz gero, Mikelek On Kixoteren irudia ekarriko digu gogora, idealismo erabatekoa, ongia egiteko gogo eutsiezina, gloria erdiesteko grina eta errealtatearen interpretazio eszentrikoaz.

Patxok Santxo Panza baten itxura hartuko du, bere pragmatikotasun erabatekoa, anbiziorik eza ikaragarria eta baldarkeriarekin.

Bestea bezain zoroa, ez bada gehiago.

SINOPSIA

“Mikelote eta Pantxo” bikote artistikoa desegin da. Haien formula komikoa gastatua zegoen, eta belaunaldi berriek haien tokia okupatu dute.

Pantxok ondo hartu du behartutako erretiroa. Eskenatokietatik urruntzeko gogo zuen aspalditik, bizimodu lasai eta normalizatua desiratzen zuen, artearen eromenetik urrun. Mikelotek ez du bukaera onartu nahi. Antzerkiaren pozoia sakon errotuta dago bere zainetan. Eta pozo horrek burua galtzeraino eramango du.

Egun batean Mikelote, “antzerkilari andante” estrafalariora, Pantxoren bila joango da, trasteak prestatu eta Euskalerrian barna joateko, herriz herri antzeztera, “Euskal Antzerkiak Behar Gaitu” uste inozoarekin.

Horrela ibilbide fantastiko bat egingo dute Euskal Herrian zehar, hamaika abentura ero biziz. Mikeloteren imaginazioak sorturiko pertsonaia harrigarriak ezagutu eta egoera korapilatsuetan endredatuko dira.















EZ DOK ERO

Patxo Telleria

(Antzeztu zen moduan...)

1. NON KONTATZEN DEN

PATXOK MIKEL ERIETXE SIKIATRIKORA EKARRI DUELA

Mikel agertzen da. Testua eskuan dauka.

Mikel

(Irakurtzen) **Mikel eskenatoian sartzen da. Modu estrafalarioz jantzita dago, zoroa ematen du.**

Mikelek bere burua ikusten du. Ez dago oso arraro.

Mikel

Eszenografia ikusten du. Telebistak pizten ditu. Publikoa bertan dagoela konturatu eta testua gordetzen du. Modu klowneskoan hitz egiten hasiko da.

Mikelek testua uzten du eta hitz egiten hasten da.

Mikel

Eta orain, publiko txiki txiki? Txit! maitea, eskapismo saio txiki-xume bat!!! Artistak minutu txiki-labur bat izango du bortxazko alkandora txiki-estutik libratzeko, bestela, bonba txikitzaile txiki-nimino honek txiki txiki-bang bang! egingo du.

Txalo txiki arin bat berarentzat!

Pantxo sartzen da, bortxazko alkandorarekin.

Patxo

Ez dauka graziarik, kendu hau!

Miklelotek barre egiten du.

Mikel

Ja, ja, ja... Ez da askatuko, ikusiko duzue. Zelako txiki-zioa!

Patxo

Kentzeko, ba! Ez gara jolastera etorri!

Mikel

Ezin dut, trena hartu behar dut. Txiki-txi-ki-txi-ki-txi-ki-txi-ki, Tuuu tuuu!

Mikelote badoa.

Patxo publikoari hitz egiten dio, bortxazko alkandora kostata kentzen duen bitartean.

Patxo

Ez naiz ni zoratuta dagoena, bestea da, Mikel! Beragatik etorri naiz zuengana, doktore psikiatra txit agurgarriak, zuek adituak zarete eta jakingo duzue zer duen, ea burua galdu duen, edo zoratu den, edo aztoratu, besterendu, birloratu, gorabeheratu, liluratu, nahaspilatu, txotxatu, txunditu, zorobilatu edo zozotu!!! Zuek esango didazue ea eroaldia pairatzen ari den, edo ainaldia, aldikada, arindura, aztoramena, durduzadura, eldarnioa, erauzimendua, haizekeria, harrikada, kiska edo lilurapena. Ea dagoen alienatua, asaldatua, burutik eginda, harrak jota, ilargiratua, torlojua askatuta, zinatua edo zoratuta!!!

Azkenean bortxazko alkandoraz libratzea lortuko du.

Mikelote txaloka, **banbalinen artetik burua agertuz.**

Mikel

Brabo! Brabo!!! (Ahopeka) Orain bonba desaktibatu!

Patxo

Utzi jolasteari eta zatoz hona!

Mikel

(Xuxurlaka) Lehenago bonba desaktibatu!

Patxo

Zer?

Mikel

(Bonba seinalatuz) **Bonba!**

Patxo

Nahikoa dugu, mesedez!

Bonba lurretik jaso eta Mikelote dagoen aldera botatzen du.

Patxo

(Publikoari) Gero eta okerrago dabil, gizajoa. Baina lasai, bere eromena ez da arriskutsua. Bat ere ez.

Une horretan bonbak eztanda egiten du.

Patetatik hauts trinko bat ateratzen da. Zirkuko efektu-berezi naif eta xaloa.

Mikelote sartzen da, kiskalita eta ileak puntan.

Mikelote

Patxo, Zu ez zaude burutik sano!!!

2. NON MIKELOTEREN GAIKOTASUNAREN BERRI EMATEN DEN

Patxo

Hau da Mikel. Badakizue... (Eroaren keinua egiten dio publikoari)

Mikel

Norekin ari zara?

Patxo

(Astiro eta ozen) Pertsona jator hauek zuri lagundu nahi dizute, ulertzen?

Mikel

(Astiro eta ozen) Ez, ez dizut ulertzen. Zertan lagundu behar didate pertsona jator hauek?

Patxo

Psikiatrak dira.

Mikel

Denak sikiatrak? Ja! Non gaude, ba, Argentinan? (Publikoari, Argentinako doinuaz) Ché, boludoh, cómo leh fue?

Patxo

Argentinan ez, erietxe sikiatriko batean.

Mikel

(Patxo erotzat hartuz) Jakina, erietxe sikiatriko batean!

Patxo

Erietxeko ludotekan gaude, espezialista talde baten aurrean. Hemen psikodramak egiten dira.

Mikel

(Liluratuta) Psikodramak!

Patxo

Zure kasua azaltzen ari naiz. Ulertzen?

Mikel

Jakina! Ulertzen dut psikodramaren planteamendua: zuk zentzudunarena eta nik eroarena egin behar dut. Pierrot eta Augusto, listoa eta tontoa... ederra eta piztia, lodia eta flakoa. Klasiko bat. Segi...

Patxo

(Publikoari) Dakizuenez, urte luzeetan, bikote artistikoa izan gara.

Mikel

Aspertzen ari naiz.

Patxo

Ba jolastu. Ludoteka batean zaude.

Mikel

Zurekin jolastu nahi dut.

Patxo

Ezin dut. Jolastu zuk bakarrik.

Mikel

Ah, eskerrik asko, Patxo.

Patxo

(Publikoari) Hasieran oso ondo moldatzen ginen...

Mikel

Puzzle bat egingo dut.

Patxo

Arrakasta genuen...

Mikel

Ez, sokasaltoan egingo dut.

Patxo

Bikain. (Publikoari) Publiko asko biltzen genuen...

Mikel

Ba duzu sokarik?

Patxo

Ez!

Mikel

(Haserre) Eta orduan nola jolastuko dut ba, sokasaltoan???

Patxo

Jolastu nahi duzunera.

Mikel

(Maitekor) **Ah! Eskerrik asko, Patxo.**

Pantxo

(Publikoari) Euskal antzerkiaren
erreferenteak ginen...

Mikelote

Zorua garbituko dut ipurdiarekin.

Pantxo

Eh? Zer ari zara egiten?

Mikelote

**(Konfidentzial) Zoruarena... ez...
Zoroarena egiten ari naiz. Badakizu,
"psikodrama".**

Pantxo

Egin nahi duzuna.

Mikelote

**Bazatoz nirekin? Ipurdi birekin
azkarrago garbituko dugu.**

Pantxo

Orain ezin dut.

Mikelote

**Batez ere zuk, zure ipurdi lodi
horrekin...**

Pantxo

Urtetan egon ginen...

Mikelote

**Zorua garbitzeko ipurdirik egokiena
daukazu.**

Pantxo

...herriz herri...

Mikelote

Ipurdi maiuskulua! Ipurdi maiestatikoa!

Pantxo

Zorua garbitu nahi baduzu, zoaz eta
utzi bakean.

Mikel

Gero ez esan inbidia duzunik!

Mikelote zorua garbitzen hasten da ipurdiarekin.

3. NON LEHENGO GARAIK GOGORATZEN DIREN.

Patxo

(Mikeloteri begira) Orain zaila da imaginatzea, baina behinola arrakasta izan genuen. "Mikel eta Patxo Bikoteatroa".

Mikelote lurretik arrastaka.

Mikel

(Pozik) Eta orain arrastaka gabiltza!

Patxo

Jendeak barre egiten zuen gurekin, ez dakit zergatik.

Mikel

Perfil... Ez!... Vis komikoa!

Patxo

Eszenatokira agertu, eta ezer esan gabe, barrez hasten ziren. Trukoa oso erreza zen, edozein tontakeria hartu eta horrekin hitz jokoak egin. Esatebaterako, Orreagako Gatazka, abezedariko letra guztiekin: A: Aspaldian, Aezkoako alderdi aldapatsuan, ardiak aharrausika. Alabaina, arbolen artean, Almoravideen aurka altzaturiko armada agertzen ari, aguro...

Mikel

Egon egon... Zertan ari zara? Antzezlan zahar bateko esketxa erabili nahi duzu antzezlan berri honetan???

Patxo

Hau ez da antzezlan, medikuekin ari gara...

Mikel

Esketx bat errepikatu? Zer pentsatuko dute? Imaginazioa bukatu zaigula? Artistok ez gara sekula errepikatzen!

Patxo

Gure estiloa azaldu nahi diet.

Mikel

Azaldu dezagun. Baina esketx berria egiten. Esatebaterako, Txanogorritxu.

Patxo

Txanogorritxu??? Izugarri topikoa da!

Mikel

Hori izan da beti gure estiloa: topikoekin jolastea, txiste merkeak egitea, hitz joku kutreak.

Patxo

Zorionez, hura bukatu zen.

Mikel

Txanogorritxuren ipuina kontatuko dugu, herrien izenak erabiliz! Hau da, Txagorritxu eta Otsondoren ipuina.

Patxo

Baina...

Mikel

Hasi!

Patxo

Amona ez da Gasteiz, ez Elduaien, amona Donazaharre. Amona gaixorik. Sukarrieta. Ez Estarrona. Eta gainera Asteasu osoa Usansolo. Horreagatik Txagorritxu amonaren Etxebarrira. Baina Basozelaian, Otsondo.

Mikelote

(Izututa) **Kongo, Kongo, Otsondo!** (Ihes egin nahiean)

Pantxo

"Oregon!"

Mikelote

(Dardarka) "**Zambia... Zera... Zimbaue, zera... Gabon!**"

Pantxo

"Gabon. Nola Yemen?"

Mikelote

"**Toki on.**"

Pantxo

Etxanogorritxu Ziburutik Oinatira beldurrez Abrasate. "Zer daramazu Zestoan?"

Mikelote

"**BaraKALDO ZuBEROA, Barrika batean. Beno... BONBAY!**"

Patxo

Txagorritxu Amonaren Etxebarrira. Baina Otsondo lehenago heldu da. Amona Kuartangon, Sestao egiten Erronkari. "Amona. Altsasu!" Amona Altza eta Sopuerta ireki. Otsondok amona Ataun, Fustiñana Donapaleu, eta jan. Txagorritxu Usurbil! Otsondo amonaz Labastida, Siria sartzeko prest: "Araba, Araba, Zelanda nere txikitxua!" Musu egin dio Espainian, Ermua Ermua. Eskozia egin dio. Txagorritxu Arteaga dago, Lezama Legorreta. Eskuak Busturia.

Mikel

"**Macao, amona, Gizaburuaga handia!**"

Pantxo

Holanda, Bai.

Mikelote

"Araba, amona, Orexa Luzaide"

Pantxo

Veneton?

Mikelote

Amona, Aginaga Zornotza!

Pantxo

Heu jateko! Orduan Otsondok Eraso Kalkutatu, Eta Quito!

Mikel

Amezketar bat.

Txalo gutxi eta batez ere txistuak entzuten dira.

Pantxo

Eta horrela beti. Istorio bera kontatuko genuen onomatopeiak erabiliz, hurrenkera alfabetikoan... Txiklea erabat gastatu arte mastekatu genuen.. Eta jakina, jendea azkenean gurekin erabat aspertuta zegoen

Mikelote

Orain Txanogorritxu-ren ipuina, abizenekin!

Hau da, Etxano-Gorriti, Amonategi eta Otxotorena-ren ipuina.

Pantxo

Amonategi ez Gaztearena. Lehen bai, lehen Gazte Gaztelu, eta Fullaondo. Baina orain Igartua, Zarrabeitia. Soloeta Bizinai, Solaetxean Soloaga. Gisasola. Gainera ez Aberasturi. Horregatik Exano-gorriti Amonategiren Etxebarrenera. Basozabalen Otxotorena Beobide Arbolantxa baten Aspiroz. "Olasagasti!"

Mikel

IbarrOLA!

Patxo

Zelan Zarate?

Mikel

Gabilondo Garate. Eta zu?

Patxo

Aldanondo.

Mikel

Amonategiren etxera noa.

Patxo

Amonategi Etxeberria?

Mikel

Ez, Etxezarreta.

Patxo

Bengoetxea?

Mikel

Ez, Goikoetxea

Patxo

Ibarretxe?

Mikel

Garaikoetxea!

Mikel

**Urrutikoetxea, Basterretxea,
Larrakoetxea**

**Bai... Etxandia, Ormaetxe, Telletxea.
Muniategigoikoandikoetxea**

Patxo

.....
Lekuona

Mikel

Or-be-gozo.

**Amonategirengana daramat Sagarduy,
Madariaga, Intxaurrondo, Bakaikua
Salsamendi, Gaztañaga eta Gaztanbide.**

Bidaondo!

Patxo

Exano-gorriti Basozabal. Baina
Otxotorena Azkarraga Karrere eta
Amonategi jan. Gero Etxano-gorriti
dator.

Mikel

**Amonategi! Salaburun zaude?
Ategorrieta Zabalaga! Altzate, Esnaola.
(...)**

Patxo

Exano-gorritik Otxotorena Begiristain.

Mikel

**"Amonategi, Belarrinaga Altolagirre"
"Amonategi, Oinederra Gordoniz"
"Amonategi, Bernaola Guarrotxena"
"Amonategi, Burutxaga Arrugaeta"**

Patxo

Heu jateko! Eta Otxotorenak Azkarate
Bizkarrondon eta Egurrola Errazkin.
Exano-gorriti Zulueta.

Mikel

Kerejeta!

Esketxa bukatzen denean, txistuak eta oihuak oso ezen.

Ikusleak (Off)

Zoazte pikutara! Jubilatuz zaitezte eta
utzi pakean! Plastak!!!

Sekulako burrundaia entzuten da.

Ikusleak (Off)

Fuera!! Zoazte etxera behingoz!!!
Plastak!!!

Mikel

Eta obazio hau? A ze arrakasta, Patxo!

Patxo

Baina zer diozu, ez dira txaloak,
ohiuk dira!!!

Mikel

Ixo, eta jaso txaloak!!!

Mikelotek "obazioa" jasotzen du.

Mikel

Milesker!!!

Ikusleak (Off)

Agur betirako! Patetikoak!! Zoazte
etxera!!!

Mikel

**Nik ere maite zaituztet. Nik ere maite
zaituztet!!!**

Patxo

Une hartan konturatu nintzen
erretiratzeko ordua zela.

Mikel

**(Pantxori) Zelako emozioa, Patxo!!
Zelako... zelako...**

Zer duzu?

Mikelote **zorabiatzen** hasi da.

Patxo

Mikelote, zer gertatzen zaizu?

Mikel

**Niri? Ezer ez. Prosenio banbalina apur
bat akotazioa! Aurreko oihala atrezzo
dugu eta antagonista antzezle gaituzte.
Orduan kamerinoa genbiltzan baina
teloia gaitezke eta, jakina, mutis por
el foro. Bestela dena on... dena on... dena
on... dena of...**

Mikelote **erortzen** hasten da oso modu klowneskoan.

Mikelotek bere "zorabioa" antzezten bukatzen du, ukitu klownesko batekin, esatebaterako "Goian bego" edo "Cerrado por reparaciones" kartel bat ateratzen.

4. NON KONTATZEN DEN OSPITALEAN BIZI IZAN ZUEN ABENTURA ZORAGARRIA

Patxo

Bazen garaia erretiratzeko. Mikel ospitalera eraman zuten. Burua galtzen hasita zegoen! Eta orduan hasi ziren lehenengo delirioak.

Mikelote ospitaleko ohean.

Lingua Nabajorumeko pertsonaia bat agertzen da: Gudaria. Eskopetarekin Mikelote apuntatzen du.

Gudaria

Geldi! Altzatu eskuak!!!

Mikel

Parkatu. Nor zara?

Gudaria

Ez nauzu ezagutzen? Zuen antzezlan bateko pertsonaia!

Mikel

**Zure aurpegia ezaguna egiten zait...
Baina...**

Gudaria

Lingua Nabajorum! Gudaria! Erderakadak esaten zituena!

Mikelote

Ah, bai! Oso eszena polita.

Gudaria

Polita? Polita barre egitea Gerra zibilaren kontura?

Mikel

Erderakada!

Gudaria

Zera, herritarren arteko gudaren kontura?

Mikel

Beno, gaia errespetuz tratatu genuen...

Gudaria

Erderakada!

Mikel

Barkatu, gaia begirunez jagondu genuen.

Gudaria

Begirunez??? Ez adarrik jo niri, eskopeta daukat!

Mikel

Erderakada!

Gudaria

Zera...! Balak jaurtitzeko gailu mekanikoa.

Mikelote

Eta zer nahi duzu?

Gudaria

Mendekua. Min handia egin diozue euskal herriko historiari...

Mikel

Erderakada!

Gudaria

Gure iraganeko gertakizunen irakurketari!

Mikel

Baina gu komikoak gara.

Gudaria

Erderakada!

Mikelote

Barreginarazleak.

Gudaria

Baina gerra zibila tragedia bat izan zen!

Mikelote

Erderakada eta erderakada!

Gudaria

Herritarren arteko guda, amaiera zorigaiztoa duen jite ezkorreko egoera bat izan zen!

Mikel

Ez dizut piperrik ulertu.

Gudaria

Ez naiz harritzen!

Mikel

Zu hasi zinen joku honekin!

Gudaria

Ez! Ni ez nintzen honelakoa. Ni gudari normal zera... arrunt bat nintzen. Ni lasai nengoen nire trintxeran... zera nire jaurtigailuak babesturik jaurtitzeko lurrean eginiko zuloan. Nik euskeraz ondo egiten nuen, joder...

Mikelote

Aiiii! Erderakada!

Gudaria

Ondo egiten nuen, Arranopola!

Mikel

(Barrez) **Arranopola!!!!**

Gudaria

Gudari bat nintzen eta pailazo bihurtu nauzue. Zera... Era deigarritz itxuraldatua, keinu baldar eta

zantarrez ateraldi barregarriak esaten dituenak!!!!

Mikel

Beno, goazen harira! Zertara etorri zara?

Gudaria

Zuen amaieragatik poztu naizela esatera! Ez dugu berriro jasango zuen antzerki superfizi... azalgainekoa eta fribo... hutsalkeriazalea!

Mikelote

Azalgainekoa eta hutsalkeriazalea?

Gudaria

Herri honek arazo handiak ditu eta antzerkiak arazo horiei erantzun behar die. Herriak ez ditu behar zuen hitz jolas merkeak.

Mikel

Arrazoi duzu! Hemendik aurrera herri honek behar duen antzerki sakon eta esanguratsua egingo dugu!

Gudari

Ez! Gaizki ulertu didazu. Antzerkia utzi behar duzue...

Mikel

Milesker, Gudari! Gora zu...

Gudari

Nora zoaz?

Mikel

Patxorengana. Antzezlan berria prestatu behar dugu.

Gudari

Geldi eta zirkinik ere ez, bestela tiro egingo... zera... jaurtigailua jaurtiko dut!

Mikelote

Jaurti-gailu-gabetuta dago.

Gudari

Nola?

Tiro egiten du baina ez du funtzionatzen.

Mikel

Deskargatuta.

Gudari

Kaka zaharra... zera... aintzineko mokordoa!

Mikel

**Fikziozkoa da. Gezurrezkoa. Zu bezela.
Eta berriro ere milesker! Begiak ireki
dizkidazu!**

Gudari

Ez, ez joan! Munstro bat sortu dut!
zera... Izadiaren arauetatik kanpo
eraturiko izaki biziduna!

Mikel

**Agur... Ah eta gauza bat, kontuz ibili!
Zure balizko guda hartan zaude oraindik
eta oraintxe bertan zure gainera
jausten ari da zeruburrundotsa bat.**

Gudaria

Zer?

Mikelote

Kiskali-burrumba bat!

Gudaria

Nola?

Mikelote

Hegazkin-jaurti-gailua!!!

Bonba batek eztanda egiten du. Gudaria hiltzen da.

Mikelote

Bonba!

Gudaria

Erderakada!!!

**5. NON GASTEIZLANDIAN IZANDAKO BILERA
INTERESGARRIA KONTATZEN DEN**

Patxo

Egun hartan dei bat jaso nuen.

Mikelote eta pantxo telefonoz.

Mikel

Patxo!!! Gudariarekin hitz egin dut!

Patxo

Norekin?

Mikel

**Gudaria! Lingua Nabajorumeko
pertonaiarekin!!!**

Patxo

Baina zer arraio...?

Mikel

Bueltatu behar dugula esan dit!!!

Patxo

Egon, egon...

Mikel

**Okerturik egon gara orain arte.
Pikutara txiste errezak eta merkeak!!!
Antzerki konprometitua egingo dugu!!**

Pantxo

Baina...

Mikel

**Jaurlearitzara noa subentzio bat
eskatzera!**

Pantxo

Ez, ez!! Ez joan, ezin dugu
 bueltatu...!!! (Publikoari) Ez zidan
 kasurik egin. (...) Funtzionarioa
 Gasteizlandiako bere despatxoan zegoen.

Funtzionarioa Walt Disney-ko pertsonaia baten modukoa da,
 eta publikoari "tontoak" balira bezela hitz egiten die.

Funtzionarioa

Kaixo, lagunak! Gasteizlandiako
 Funtzionarioa naiz. Nire lana
 herritarrei zoriona eta ongizatea
 bermatzea da. Zatozte, zatozte nirekin
 Gasteizlandiako mundu zoragarrira!
 Gobernuaren laguntza behar baduzue, ez
 egin dudarik, egin txistu, horrela...

Xirula baten txistua entzuten da.

Funtzionarioa

...eta zure bila joango gara.

"Give a Little Whistle" doinuarekin kantatzen du.

Funtzionarioa

*Edikto, ebazpen
 edo ziurtapena
 Gora Burokrazia!
 Gora Burokrazia!
 Agindu, deialdi
 edo ziurtagiria
 Gora Burokrazia!
 Gora Burokrazia!*

Hurrengoa, mesedez!

Mikel sartzen da, eskenaren eridan, pozik, musikarekin
 dantzari.

Mikel

Egun on.

Funtzionarioa

Ongi etorria Euskadiko Boletin Ofizialaren izenean. Zer a) tramitatu, B) gestionatu, c) kudeatu edo d) bideratu nahi duzu?

Mikel

Dirulaguntza bat eskatzera nator, "Bikoteatroa"-ren antzezlan berrirako.

Funtzionarioa

Bikoteatroa? Mikel eta Patxo? baina ez da a) erretiratu, b) jubilatatu, c) desagertu d) desintegratu?

Mikel

Ezta pentsatu ere!

Funtzionarioa

(Izua ezkututzen) Zelako a) Poza! b) Atsegina! c) Alegrantzia edo d) Gozaldia!

Mikel

Milesker.

Funtzionarioa

Baina benetan ondo a) pentsatu b) hausnartu c) gogatu edo d) mediatu duzue? Zuek ez al zarete apur bat a) zaharrak b) antzinakoak c) antigualekoak edo d) karka hutsak?

Mikel

Sasoi betean gaude. Erabakita dago: Euskal antzerkia eraberrituko dugu.

Funtzionarioa

Ze ondo! (Negarrez haste da) Joder... Joder...

Mikel

Zer duzu?

Funtzionarioa

Ez da ezer, pasako zait, baina...
 Publikoarekin pentsatzen ari naiz...
 Gaixoak...!!!

Mikelotei kutsatzen zaio "emozioa".

Mikel

**(Zotinka) Milesker, ez nuen uste gure
 itzulerak hainbeste emozionatuko
 zintuenik. Gero esango dute euskal
 administrazioa ez dela antzerkiarekin
 inplikatzeko!**

Funtzionarioa

(Negarrez) Bueltatuko dira!!!

Mikel

**Beno... Ba esango didazu zer egin behar
 dudana Subentzioa tramitatzeko.**

Funtzionarioa

Bai. Entzun arretaz

("With a spoonfull of sugar" melodiarekin)

Funtzionarioa

*Eskari bat egitea
 ardularitza batean
 dibertigarria izan leike
 kasu egiten badidazu...*

*Errekursu edo zirkular
 ziurtagiri edo baimen
 azkar, errez tramitatuko da...*

**Nanaren fotokopia birritan konpulsatu
 Familia liburu, jaiotza agiria,
 Azkeneko lau nomina, bizitza aseguru
 errolda ziurtagiria**

*Zure zerbitzura gaude
zure mesedetan gabiltz
gau eta egun gogor lanean.
Baina zigilu txiki bat
menturaz ahaztu bazaizu..
zatoz arren hurrengo batean!*

Mikel

Dena daukat!!!

Funtzionarioa

Benetan??? Ah, baina ahaztu zait.
Baita ere behar duzu...

Berriro kantuan. Estrofa bera baina letra gehiago sartuz.

Funtzionarioa

*Bi argazki karneteko, hiru tanpon
lau zigilu bankuak konpulsatuak
zergak eguneratuta izatearen
egiaztapen ofizial diputazioak bermatua
portaera egokiaren agiriaren hamazazpi
fotokopia epaitegiko zigiluarekin...*

Mikel

Dena daukat!!!

Funtzionarioa

eta ardo botila on bat.

Mikel

Baita ere!

Funtzionarioa

Arranopola!!!

Mikel

Orduan, subentzinoa emango diguzue?

Funtzionarioa

Ba... Sentitzen dut baina... ezinezkoa da.

Mikel

Zergatik?

Funtzionarioa

Eh...? (...) Ba... Ez da erreza azaltzen.
Ardularitzan hitz magiko bat erabiltzen
dugu.

Mikel

Ze hitz magikoa?

Funtzionarioa

Esleitubermagarrikudeagarriezina!

Mikelote

Eta zer esan nahi du?

Funtzionarioa

Nahi baduzu, kanta batez azalduko
dizut!

Mikelote

Bikain!

Funtzionarioa

Ezetz esatea da...

"Supercaligarfilisticoespialidoso" doinuarekin.

Funtzionarioa

*Burokrata batentzat egoera gordina,
ezetza adierazteko ez dago modu fina,
estuasun horretan aurkituko bazina,*

esan:

Esleitubermagarrikudeagarriezina!

Mikelotek estribilloa kantatzen du pozik.

Mikelote

Don bilidon bilidon bilidon

Don bilidon bilidon bilidon

Don bilidon bilidon bilidon

Don bilidon bilidon bilidon

Funtzionarioa

*Dekretua agindua edikto edo paskina,
guretzak sakratua da euskal boletina.
Burokraziak badauka beti erantzun fina:
Esleitubermagarrikudeagarriezina!*

Mikelote

*Gaizki ulertu ez badut, nire eskabidea
da...*

Azkeneko estrofa biek kantatzen dute. Mikelote dantzan eta pozik irteten da bulegotik.

Biak

*Esleitu-bermagarri-kudeagarriezina...
Esleitu-bermagarri-kudeagarriezina...
Esleitu-bermagarri-kudeagarriezina...
Esleitu-bermagarri-kudeagarriezina..!*

6 NON DURANGOKO AZOKAN GERTATURIKO ABENTURA SINESTEZINA KONTATZEN DEN

Pantxo

*Ez zegoen diru laguntzarik, baina noiz
izan da artista zoro batentzat dirua
oztopo?*

Mikelote "aktore" jantzita agertzen da. ¹

Pantxo

Nor arraio? Ze... arraio...?

Mikelote

*Ez al nauzu ezagutzen, ene Pantxo
fidela? On Mikelote Arinزانokoa naiz,
Euskal antzerkiaren teatrero andantea,
Euskal antzerkia eraberritzeko prest.*

Pantxo

¹ On Kixotek jazkera estrafalariora zeukan "caballero andante" jantzi zenean: oso ospetsua da buruan, kasko bezela erabiltzen zuen bizarginaren erretilua. Era berean, Mikelote "teatrero andante" jazten denean irudi potente bat bilatu beharko genuke. Une honetantxe ateratzen duena.

Baina euskal antzerkiak ez du gure beharrik!

Mikelote

Adorerik ez baduzu, bilatuko dut beste ezdokero bat... beste eskudero bat.

Pantxo

Baina ze eskudero eta zer...?

Mikelote

Agur eta ohore!

Mikelote irtetera doa.

Pantxo

Itxaron! Zurekin noa.

Mikelote

Ondo da. Baina ez dut txiste edo gag merke bakar bat ere entzun nahi, argi dago? Antzerki sakon eta konprometitua egingo dugu hemendik aurrera. Goazen!!!

Pantxo

(Publikoari) Ezin nuen bakarrik utzi. Herri batera heldu ginen, zeinaren izena ez dudan gogoratu nahi, baina hor ospatzen da urtero Durangokoko Liburu eta Diska Azkoa.

Durangoko azokako burrundaia entzuten da.

Pantxo

Abendu hasierako zubia zen, Azoka pilpilean zegoen.

Mikelote

Kendu txapela, ene Pantxo fidela, euskal kulturaren bilgune sakrosantuan gaude. Toki paregabea gure lehenengo agerraldia egiteko.

Pantxo

Hemen??? Baina... Jendetza dago eta kriston zarata! Eta ez gaude programatuta!

Mikelote ohiuka zarata ozenaren gainetik.

Mikelote

(Ozen) "Din-Don Gaur arratsaldeko zortziretan, Landako Gunean, Mikelote eta Pantxoren itzulera... Dohainik. Etzazue galdu, gaur arratsaldean...!"

Estanpida bat entzuten da. Ate hotsak. Handik gutxira, erabateko ixiltasuna.

Offeko abotsa entzuten da. Futbol esatarien tonoz.

Esataria (Off)

Eta segidan, Landako Gunean, azken azokalariaren txanda. Pablo Erositegi!!! Lehenengo hamarren artean sailkatu da azkeneko urteetan eta aurten faborito nagusia da kiniela guztietan.

Txaloak entzuten dira. Azokalariak eskua altzatzen du agurtzeko, beroketak egiten dituen bitartean. Poltsa handi bat darama, hutsik.

Azokalaria sartzen da.

Azokalaria

Mesedez, kendu hortik. Lehiaketa eremuan zaude!

Mikel

Zer lehiaketa?

Azokalaria

Euskal Kulturaren Txapelketako finala.

Mikel

Ah, ze interesgarria! Eta nola neurtzen da euskal kultura?

Azokalaria

Kiloetan.

Mikel

Nola kiloetan...?

Esataria

Hadi, hamar segundu... bost, lau, hiru,
bi, bat... Ekin!!!

Salmaiharen inguruan erosle
konpulsiboek defentsa lerro sendoa
antolatu dute, baina Pablo Erositegi
ukondoka sartuta barrurantz egin du,
falta izan liteke, epaileak jarraitzeko
dio eta Saizarbitoria bat erosi du!

Ezker hegalean ere leia bizia dago
Andu Lertxundiren azkena eskuratzeko,
baina Erositegik zuloa bilatu eta
saskiratu egin du. Gainontzeko bezeroek
jokaldia protestatzen ari diren
bitartean Mitxelena bat eta Gaindiaga
bat ere sartu du! Nola ez zaitugu ba
maiteko, Erositegi, nola ez zaitugu
maiteko!

Orain Itxaro Borda bat hartzen saiatu
da, baina langara!!! Dena den errebotea
baliatuz Katixa Agirre hartu, aukera
garbia izan daiteke... eta bai!!! Barrura
Katixa Agirre!

Kontraerasoan orain Jon Miranderen
bila, eta segidan Xabier Montoia,
baina hadi... jokoz kanpo...! Beñat
Etxepare dauka orain eskuartean,
Etxeparek Xalbadorri, Xalbadorrek
Arestiri, Arestik Sarasolari, Sarasolak
Leizarragari, tiki taka zelai erdian,
eta denak barrura! Jokoaren norabidea
aldatu eta Eider Rodrigezen liburua
dauka, eroslez inguratuta dago, baina
autopase bat egin eta liburua poltsara
erosketaldi bikain batez!!!

Eskubiko hegalerara jo du jokoa aldatuz,
bere aurrean hiru defentsako lerroa,
Orixe, Lauaxeta, eta Lizardi...

karriletan Mariasun Landa eta Tere
 Irastorza, atepean Unai Elorriaga...
 denbora agortzen ari da... eta... denak
 poltsara ...!!! A ze erakustaldia
 erosketaldian!!! Gora zu, Jainko
 bakarra dago zeruan eta zu zara bere
 profeta!!!

Azokalaria poltsa beterik dauka. Arnas estuka dago.

Esataria (Off)

Segidan pisaketari ekingo diogu.
 Emozioa pilpilean Landako Gunean,
 Euskal Kulturaren festa erraldoian:
 Hamaika kilo liburu!!! Hamaika kilo
 liburu!!!! Txapelduna daukagu!!!!

Azokalariak txapela jazten du. Txaloak jasotzen ditu.

Esataria (Off)

Zorionak, azokalari.

Azokalari

(Oraindik arnas estuka) Eskerrik asko.

Esataria (Off)

Libururen bat irakurriko duzu?

Azokalaria

Irakurri? Nik??? Ja!! Ezta botiken
 instrukzioak!!!

Barreak.

Esataria (Off)

Beno, ba, zorionak benetan.

Azokalaria

Milesker zuei. Eta gora euskal kultura!

Publikoak aho batez erantzuten du: "GORA!!!"

Azokalaria badoa txalo artean.

Mikel sartzen da, Gudariaren eskopetarekin.

Mikelote

Geldi mundu guztia!!!

Beldurrezko oihuak entzuten dira.

Mikelote

Zer maskarada makabroa izan da hau?? Ze adar jotze?

Pantxo agertzen da.

Pantxo

Baina zertan ari zara!!!

Mikelotek Pantxorrengana darama eskopetaren ahoa.

Mikelote

Geldi zu ere! (Publikoari) Azalduko didazue ze izan den hau, ala tiroka hasi eta barrabaskeria bat egingo dut!!!

Pantxo

(Jendeari) Lasai. Jaurtigailugabetuta dago. Zera! Deskargatuta dago.

Mikelote

Eta zuek, idazleak, jarri lerroan, hor, nik ikusteko moduan!

Pantxo

Ez, idazleak utzi pakean!

Mikelote

Eskuak gora! Ez dut tonteriarik nahi! Uxue Alberdi eta Miren Agur Meabe, isilik! Harkaitz Cano, barrerik ez! Atxaga!!!

Pantxo

Ez! Atxaga ez, mesedez!

Mikelote

Zu ere negozio zikin honen partaidea zara? Esan zerbait! Ez dakizu jada euskeraz???

Atxaga (Off)²

"Gutxi gora behera, aditzak barne,
hogeita zazpi hitz".

Mikelote

Nola???

Atxaga (off)

"Marraskilo, zizare, zomorro, armiarma,
igel, zein putzu edo zulotan eskutatzen
zarete? Hor gado erreka, hau da nire
erresuma, gosiak nago!"

Mikelote

**Hogeita zazpi hitz bakarrik? Ba ederto
jo diguzu adarra hainbat urtez!**

Pantxo

Utziozu bakean!! (Atxagari) Bernardo,
barkaiozu, ez baitaki zer egiten duen.

Mikelote

**Kirmen!! Kirmen Zu ere saldu zara??
A ze Krimen, Uribe! Zuk ez dakizu
zelako mina egiten didazun!**

Kirmen

"Ez zintudan eraman eskutik helduta
eskolara zure lehenengo egunean."³

Mikelote

Nola?

Kirmen

"Ez nizun erakutxi txintxirrinka
ibiltzen. Ezta gordeka ere." (Id)

Mikelote

Ah, ez???

Kirmen

² Hitz hauek "Trikua" poematik aterata daude. Grabatuta dago Atxagaren ahotsaz.

³ <http://kirmenuribe.eus/es/> "Jaiotza"

“Ez zintudan lagundu hondartzara izurde gaixo hura ikustera!”

Mikelote

Bai. Bakarrik joan nintzen!! Beste ume guztiek barre egiten zidaten...!

Mikelote negarrez.

Pantxo

Hara, Kirmen, zuk badakizu bihotzera iristen, gero!!

Pantxok eskopeta hartzen dio Mikeloteri.

Pantxo

Ea, ea... Pasa da. Lasai. Ea ba, goazen.

Mikelote badoa, negarrez. Pantxo eszenatokiaren erdian geratzen da, eskopetarekin.

Pantxo

(Idazleei) Zoazte, eta barkatuiozue. Ez dago burutik sano.

Bat-batean, foko bat pizten da Pantxo itsutuz. Fokoarekin batera, poliziaren sirena hotsa.

Polizia 1

Geldi! Inguratuta zaude!!!

Patxo

Ez, oker zaudete, nik ez dut...

Polizia 2

Ixilik! Bernat Etxeparek burua alzatuko balu!

Polizia 3

Zuek, idazleak zoazte lasai eta jarraitu idazten. Poesia etorkizunez kargatutako arma bat da...

Polizia 4

...eta polizia armaz kargatutako etorkizuna da!!!

Polizia 1

Eta zu! Utzi eskopeta lurrean poliki poliki!!!

Patxo

Jaurtigailugabetuta dago. Begira.

Patxok gatilloari sakatu eta ametralladora baten zarata entzuten da.

Patxo

Arranopola!!!

Eskuak altzatzen ditu.

7. NON KONTATZEN DEN GABONETAKO GERTAKARI HARRIGARRI BAT IRUÑAKO HIRIAN.

Patxo

Urte bukaeran atera nintzen kartzelatik. Abenduaren 24ean Iruñan ginen.

Mikel

**Nafarroa, ene Pantxo fidela,
euskaldunon ama lurra! Hau bai toki
paregabea gure emanaldi baterako.
(Ozen) "Din don! Gaur arratsaldeko
zortziretan, Iruñako Zezen Plazan,
Mikelote eta Pantxoren antzezlan!
Dohainik! Gaur arratsaldean...**

Estanpida bat entzuten da. Ate hotsak. Handik gutxira, erabateko ixiltasuna.

Patxok paskin bat aurkitzen du lurrean.

Patxo

Alferrik ari zara. Gaur, arratsaldeko zortziretan, ezen plazan gabonetako Kantu Txapelketa dago.

Mikelote

**Gabonetako Kantu Txapelketa!
Ze interesgarria. Aurkeztu gaitezen!**

Pantxo

Gabonetako kantu txapelkatera aurkeztu?? Zuk ez zenuen arte apurtzailea egin nahi?

Mikelote

Eta gabon kanta apurtzailea kantatuko dugu. Ea ba ze kanta dakigu?

Pantxo

Ba betikoa... "Hator hator Mutil etxera..."

Mikelote

Egon! "hator mutil etxera"? Iruñeko neskak ez al daude gonbidatuta festara?

Pantxo

Ez dakit, kanta horrelakoa da.

Mikelote

Ah, ez dakizu? Zuri berdin zaizu emakumeak egotea ala ez? Munduko biztanleriaren ehuneko 50a gutxienez kanpoan geratzen da gabonetan eta zuri berdin zaizu?

Patxo

Ez. Ez zait berdin, baina...

Mikel

Pantxo, emakumeak sartuko ditugu kantan.

Patxo

(Kantatzen hasten da) "Zatozte zatozte neska-mutilak etxera." ... aita eta ama..

Mikel

Aita eta ama? Zenbat familia eredu ezagutzen dugu? Nahi duzu iruñarrek pentsatzea On Mikelote eta Pantxo sexu aukera ezberdinen kontra daudela, bikote homosexualak eskontzearen kontra. Imaginatzen duzu biharko portada Berrian??

Pantxo, familia eredu guztiak sartuko ditugu kantan: aita-ama, aita-aita, ama-ama, aita bakarra. Ama bakarra, ama bi, hamahiru, hamalau...

Patxo

Ez ta pentsatu ere! Ez dut erridikuloa egin nahi!

Mikel

Baina...

Patxo

Ez dudala "Zatozte zatozte" kantatuko esan dut eta ez dut kantatuko!

Publikoarengana hurbiltzen da.

Patxo

Ez genuen "Zatozte zatozte" kantatu.

Publikoarengana hurbiltzen da.

Patxo

Mikelote eta Pantxo mikrofonoaren aurrean kokatzen dira.

Mikelote eta Pantxo

Olentzero eta Mari Domingi

joan zaizkigu

mendirala lanera

intentzioarekin

energia berriztagarriekin

erregai jasangarria egitera.

Aditu dutenian

mundu justuago eta libreagoa

aldarrikatuko duen lider paganoa

jaio dela

lasterka etorri dira

berri ematera.

Horra! Horra!

Gure Olentzero eta Maridomingi!

Nikotinarik gabeko baporizadorea

kanela zaporekoa hortzetan dutela

eserita daude

soja eta tofuzko hanburgesak ere

badituzte

ekoizpen ekologiko eta aire zabalean

hazitako oiloen arraultzatxuakin

**bihar meriendatzeko
ongarri naturalez eta langileen
eskubideak zainduriko baserrietan
ekoizturiko fruta ekologikoaz eginiko
zumo botilarekin.**

Publikoa txistu eta ohiuka hasiko da. Hirugarren eszenan entzun ditugun egoera berbera.

Ikusleak (Off)

Jubilatu zaitetze eta utzi pakean!
Plastak!!!

Ohiuak. Mikelotek "obazioa" jasotzen du.

Mikelote

Milesker!!!

Ikusleak (Off)

Agur betirako! Patetikoak!! Zoazte
etxera!!!

Mikelote

**Nik ere maite zaituztet.
Nik ere maite zaituztet!!!**

8. NON KONTATZEN DEN SAN SEBASTIAN EGUNEAN IZANDAKO ENKONTRU INTERESGARRIA

Pantxo

Gabonen ostean Donostiara heldu ginen.
Urtarrilaren 19ko gaua zen.

Mikel

**Din-Don gaur arratsaldeko 8etan,
Bulebarreko kioskoan,
On Mikelote eta Pantxoren itzulera. Dohainik**

Danborrada entzuten da.

Mikelote

Zer dira danbor hots horiek?

Pantxo

Danborrada. Donostiako egunik handiena. Gau honetan hiri osoa irteten da kalera festa zoragarri hau ospatzera.

Mikelote

Ze interesgarria! Parte hartu beharko genuke!

Pantxo

Ezin dugu. Donostiaren festa da! Oso "bereziak" dira gauza hauetarako!

Mikelote

Tontakeriak!

Pantxo badoa.

Mikelote

(Baten bati) **Aizu!!** (Beste bati) **Eh, mesedez!** (...) **Ez, aizu!!!**

Danborlari bat agertzen da, sukaldariz jantzita. Oso konzentratuta Buruz gogoratzen ditu danbor kolpeak, jotzen dituen bitartean.

Danborlaria

(Konzentratu nahiean) Kolpe bi kupelan, makilak gora, kolpe bat aidean, kolpe bi kupelan, makilak gurutzatu, kolpe bi kupelan, makilak gora, kolpe bat aidean...

Mikelote

Barkatu!

Ohiuka hitz egiten dute, danborradaren zaratatik.

Danborlaria

Mekagoen la Concha! Erritmoa galdu dut!
Zer nahi duzu???

Mikelote

Ba entsalada mixtoa eta txitxarrua plantxan! (Barre egiten du) Barkatu, errez jarri didazu.

Mikelotek barre egiten du, baina Danborlariak oso serio begiratzen dio.

Mikelote

Zera, Bilboko naiz...

Danborlaria

Inor ez da perfektua.

Mikelote

...eta zuen tradizio eder hau ulertu nahi nuke.

Danborlaria

Ulertu?

Mikelote

Bai. Zertan ari zarete?

Danborlaria

Danborra jotzen!

Mikelote

Bai, hori ikusi dut... Baina festa, berez, noiz hasten da?

Danborlaria

Hau da festa!

Mikelote

Danborra jotzea?

Danborlaria

Bai!

Mikelote

Kupel batekin? Sukaldari jantzita?

Danborlaria

Bai!

Mikelote

Gau osoan zehar?

Danborlaria

Eta biharko egun osoan.

Mikelote

Baina... Zergatik?

Danborlaria

Danborrada delako!

Mikelote

Baina arrazoi bat egongo da.

Danborlaria

Historia handia dago honen atzean.

Mikelote

Zein?

Danborlaria

Ez nago seguru. Izurrite bat egon zen.
Eta gero Donostia erre zuten.

Mikelote

Sukaldariek?

Danborlaria

Ingelesek.

Mikelote

Sukaldari ingelesen?

Danborlaria

Soldadu ingelesen.

Mikelote

Soldadu sukaldariek?

Danborlaria

Adarra jotzen ari zara?

Mikelote

**Ez, festa zoragarri hau ulertu nahi
dut, besterik ez. Ingelesen erre zuten
donostia. Soldadu ingelesen.**

Danborlaria

Bai!

Mikelote

Eta gero zer gertatu zen?

Danborlaria

Eta nik zer dakit! Sua itzaliko zuten.

Mikelote

Ingelesek?

Danborlaria

Donostiarrek!

Mikelote

Donostiako sukaldariak?

Danborlaria

Ez!!

Mikelote

Donostiako danborlariak?

Danborlaria

Ez!!!!

Mikelote

Nork itzali zuen sua orduan???

Danborlaria

Suhiltzaileek!!! Donostiako
suhiltzaileek!!!

Mikelote

Ez dauka zentzurik!!!

Danborlaria

Mekago en el Kursaal!!! Nola ez?
Izurrite bat egon zen eta gero soldadu
ingelesek Donostia erre zuten eta beraz
donostiako suhiltzaileek sua itzali
zuten eta horregatik gu sukaldariz
jazten gara eta danborra jotzen dugu
kupel batekin!!!

Mikelote

Ez dut ulertzen!

Danborlaria

Donostiarra bazina ulertuko zenuke!

Mikelote

**Beno... Baina zuek, gutxienez,
dibertitzen zarete, ezta?**

Danborlaria

Dibertitu?

Mikelote

Ez, ala?

Danborlaria

Dibertigarria iruditzen zaizu hamar ordu segidan "Kolpe bi kupelan, makilak gora, kolpe bat aidean, kolpe bi kupelan, makilak gurutzatu, kolpe bi kupelan, makilak gora, kolpe bau aidean" ibiltzea? Eguzkitan nahiz euripean? Osasunean eta gaixotasunean heriotzak banandu arte???

Mikelote

**Beno, niri ez, baina donostiarra
banintz...**

Danborlaria

Ezagutzen ditut hau baino tortura goxoagoak!

Mikelote

Orduan, zergatik egiten duzue?

Danborlaria

(Ia negarrez) Izurrite bat egon zelako!! Eta gero soldadu ingelesek Donostia erre zutelako! Eta Donostiako suhiltzaileek sua itzali zutelako!! Eta horregatik Eta... eta orduan guk... Joder, hau absurdoa da!!!

Mikelote

**Lasai, donostiarra zara, egunen batean
ulertuko duzu!**

Danborlaria negarrez.

Danborlaria

(Negarrez) Nor naiz? Nora noa?
Zertarako etorri naiz mundu honetara?

Danborrada berriro hasten da.

Danborlaria

Martxan hasi dira berriro. Eta nik ez daukat indarrik, ezta gogorik ere!
Babak dauzkat eskuetan, logure naiz... egarri... Etxera joan nahi dut!

Mikelote

Baina jarraitu behar duzu!

Danborlaria

Zergatik?

Mikelote

Donostiarra zarela!

Danborlaria

Eta?

Mikelote

Nola "eta"? Izurrite bat egon zen, eta soldadu ingelesek Donostia erre zuten. Gero Donostiako suhiltzaileek sua itzali zuten eta horregatik zuek sukaldari jazten zarete eta danborra jotzen duzue kupel batekin!!!

Danborlaria

Egia da!!!

Mikelote

Donostiak behar zaitu!

Danborlaria

Bai!!!

Mikelote

Animo, soldadu... zera, suhiltzaile...
zera, danborlari... zera, sukaldari...
Beno, dena delakoa... animo!

Danborlaria badoa, negarrez.

Danborlaria

*Sebastian bat bada zeruan
Donostia bat bakarra munduan
hura da santua ta hau da herria
horra zer den gure Donostia!*

Mikelotek ikusten du nola joaten den.

Mikelote

*(Publikoari) Herrietako jaiak, kultura,
ze gauza handia!!!*

9. NON ZUBEROAKO MIRAKULUAREN BERRI EMATEN DEN

Pantxo

Otsaila aldean Euskalerriko azken muturrean geunden.
Zuberoan. Altürükün.

Mikelote

*DIN-DON Gaur arratsaldeko zortziretan...
Altürükuko plazan, Mikelote eta
Pantxoren itzulera..*

Mikelote

*Oh! Zuberoako lasaitasuna!...
Zuberoa, ene Pantxo fidela, Euskal
kulturaren gordailua! Pastoralak, herri
kantak, artzain koblakariak, xirula eta
Ttun-ttunaren doinuak! Urte sasoi
honetan maskaradak egiten dira! Han
dator pertsonaia bat! Zein izango da,
txerreroa, kantiniersa, zamaltzaina,
buhamea?*

Zuberotar bat agertzen da. Arropa normalez jantzita eta mensajería On-lineko (glove) ohiko motxila koadratua darama.

Zuberoatarra

Janari txino-thai, merke merkea,
Surumi, Sasimi, tepanyaki, sushi
moriwase!!!

Mikelote

Oh, zuberera, zeinen ederra, ez da ezer
ulertzen! "Sasimi", "tepanyaki"...!
(Zuberotarrari) Barka, ze ordutan
hasiko da?

Zuberotarra

Nola???

Mikelote

Barka! Egon pixkat...

Batua-zuberoera eskuliburu baten laguntzaz, baldar hitz eginez.

Mikelote

Arrastiri on, arrenküra bat deraukat.
Maskaradaren haidürü nihaurk, egürüki,
benan ez düzüt musikaren borogatzen.
Badakizu zein orenetan jalkiren den
herri hontan arrajüntü den Maskarada?
Edo menturaz ürrentü da?

Zuberrotarra

Kendu txupatxusa ahotik, ez dizut
piperrik ulertzen! Hori euskara da?

Mikelote

Prefosta! Zuen herriko eskuara!

Zuberotarra

Nire euskera By&Bai-koa da.

Mikelote

Zuen hizkera mitikoa desagertu da? Ez
da inon gorde?

Zuberotarra

Benito Lertxundiren diskoetan! Eta zuri
zer galdu zaizu ba toki galdu honetan?

Mikelote

Maskaradaren ikusterat etorria nauzu.

Zuberotarra

Maskarada? Zer da hori?

Mikelote

**Ez al dakizu? Inhausterietan egiten den
antzerki herrikoia! Oso errotuta dago
Zuberoako herri guztietan!**

Zuberotarra

Ah, bai! Baina berandu zatoz.

Mikelote

**Bukatu da? Baina ze ordutan...? Noiz
bukatu da?**

Zuberotarra

Duela ehun urte. Eta barkatu, baina
lanean jarraitu behar dut.

Mikelote

**Zein da zure lana? Artzaina zara,
xirularia, koblakaria, dantzaria...?**

Zuberotarra

Banatzailea naiz! Janaria erosi nahi
duzu?

Mikelote

**Zer duzu, Ezpeletteko piperrak? Iratiko
gazna?**

Zuberotarra

Janari tailandesa, italiarra eta
mexikarra!

Mikelote

Oh!

Zuberotarra

Musika ere saltzen dut.

Mikelote

**Niko Etxart? Mixel Exekopar?
Jean Mixel Bedaxagar?**

Zuberotarra

Hip hop, funk, bachata, trap!!! Tresnak
ere.

Mikelote

**Xirulak? Ttun-ttunak?, Atabalak?
Panderoak?**

Zuberotarra

Tablet, I-pad eta smartfoneak!

Mikelote

**Arranolola! Non hago, ze larretan,
Urepeleko artzaina???**

Zuberotarra

Beno, zerbait erosiko didazu ala ez?

Mikelote

**Erosi? Erosi ez, saldu!! Zeuen arima
saldu duzue zuek, zeuen nortasuna!!!**

Zuberotarra

Nongoa zara zu?

Mikelote

Bilbokoa.

Zuberotarra

Eta zergatik ez dituzue gorde XIX.
mendeko tradizio ederrak? Goizeko
lauretan altzatu, Altos Hornos-en
hamabost ordu lan egiteko, **lau sosen
truke!**

Mikelote

**Baina ez da gauza bera. Bilbao zatarra
da baina Zuberoa...**

Zuberotarra

Begira, hainbesteko pena ematen badizu,
hor duzu mendia eta nahi adina belar,

joan zaitez zu artzain, **zure xirularekin ardiak zaintzera!**

Mikelote

Baina ez didazu esango ez dizula penarik ematen!

Zuberotarra

Txikia nintzenean amak kontatzen zidan, urtero, urtero, negu beltzeko gau magiko batean, gaueko hamabietan, Zuberook bere nortasuna berreskuratzen zuela.

Mikelote

Eta hala gertatzen zen?

Zuberotarra

Zer diozu? Kondaira zen, kondairak ez dira gertatzen! Bakarrik zoroek sinisten dute kondairetan!

Mikelote

Ba suerteko zaude, ni zoroa naizelako.

Zuberotarra

Banengoen ba, ni.

Kanpai hotsak entzuten hasten dira.

Mikelote

Eta gau magiko hori noiz zen zehazki?

Zuberotarra

Ez naiz gogoratzen.

Mikelote

Neguan diozu?

Zuberotarra

Bai.

Mikelote

Bada... Neguan gaude. Gaueko hamabiak jotzen ari dira.

Zuberotarra

Gaueko hamabiak? Arratsaldeko bostak dira eta! Beno, ni lanera noa. Agur, eta zaindu buru hori! Zelako harrikada!

Hamabi kanpaikada entzun dira. Azkenarekin batera eskenatokia ilundu egiten da.

Zuberotarrak Pastoraletako errezitadoreen moduan kantatzen aterako da eszenatik.

Zuberotarra

Tepanyaki eta sasimiiiiii
Susi moriwase susumi...
jan zazu asko edo poxiiiiii
eta eurotan pakatüuuuuu...!

Mikelote

Hunkigarria, ederra, ez diot ezer ulertu!!!

Eh, begira, mendi magaletan artzainak ardiak zaintzen eta xirula jotzen... Eta laborariak koblak kantatzen! Eta hor... Maskarada! Eta ni...

Mikelote

Mikelote Muxikoak dantzatzen hasten da.

Musika entzuten da.

Mikel

Hara, ni ere zuberotar bihurtzen ari naiz! Gora zuberoa!!! Ho, pittu, hou! Hau bizimodu ederra, benetan, jauzi eta hiru, erdizka lauetan!

Patxo

Mikelote sorginduta zegoen. Ezin dantzatzeari utzi.

Mikel

Bihotza daukat dirdizka!

Patxo

Ezin zuberotar izateari utzi.

Mikel

Baina nekatzen ari naiz! Apika!

Patxo

Gelditu ezinik,

Mikel

Eginak ditut jada milaka urrats

Patxo

Dantzan eman zuen egun osoa.

Mikel

Nigatik nahikoa da, milesker!

Patxo

Eta gaua ere.

Mikel

Ezin dut gehiago, bukatu da kopla,
Jauzi, fini eta buka.

Mikel

Zuberotar plasta hauek!! Barkaidazue...
bilbotar kaletar asfaltotar bat naiz...
(Erdi lo) Ze polita trafikoa, estresa,
kotxeetako ihestutuak eta sirena
hotsak. Gora... zarata! Oh!! kon-ta-mi-
na-zi-oa! Non hago ze kaletan.

Lo geratzen da.

Pantxo agertzen da, zamaltzainaren zaldikoa gerrian daramala. Baso bat ipintzen du lurrean.

Pantxo

Lau egunez dantzan ibili omen zen gelditu gabe. Ospitalean kondaira batez hitz egin zuen. Beste zorakeria bat.

Mikelote eskenatik ateratzen da, Jauziak dantzatzen.

Pantxo

Ah, eta gau hartan niri hau atera zitzaidan gerrialdean. (Zaldia seinalatuz) Medikuek ez dakite zer den.

Pantxo dantzan basoaren gainetik saltatu ostean, badoa.

10. NON AZALTZEN DEN ASTE SAINDUAN ARRANTZAZUKO ELIZAREN AURREAN GERTATU ZEN ENDREDU HARRIGARRIA

Pantxo

Urte erdia generaman bidean eta ez genuen inon antzellanik egitea lortu. Gu ikusi orduko, publikoak alde egiten zuen. Aste saindua zen jada, Arantzazura heldu ginenean. Elizaren aurrean gelditu ginen.

Mikel

Pantxo! Begira!

Pantxo

Nora?

Mikelote

Horra!

1,2,3,4,5,6,7,8,9,10,11,12,13...!!!

Hamairu ikusle zintzo eta formal!

Pantxo

Non?

Mikelote

Hor, goian, Basilikaren frontispizioan.

Ikusi gaituzte, eta ez dute alde egin!

Hor daude, geldi, aho zabalik!!!

Pantxo

Mikelote, begira ez direla ikusleak, ez bada Oteizaren apostoluak. Eta ez direla hezur haragizkoak, ez bada harrizkoak.

Mikelote

**Harrizkoak edo hezur haragizkoak, zer inporta zaigu?
Hor daude, gure emanaldiaren zain.**

Pantxo

Ez dut antzeztuko estatua batzuen aurrean!!!

Pantxo badoa.

Mikelote

**Ze espezialittoa zaren! (Publikoari)
"Din don, gaur arratsaldeko zortziretan, Arazanzazuko basilikaren aurrean, Mikelote eta Pantxoren itzulera!"**

Oteizaren apostolu bat sartzen da.

Apostolua

Aizu, kolega!!!

Mikel

Barkatu, nor zara?

Apostolua

Galdera ona! Betiko apostoluek izena dute, Pedro, Andrés, Santiago, Tomás Mateo, Simón... Baina nik? Nor naiz ni?

Mikel

Hamalagarren apostolua!

Apostolua

Izenik gabea. Oteiza, kabroia!!!
Modernitoarena egiteagatik...

Mikel

Lasaitu zaitetz.

Apostolua

Lasaitu? Baina zuk ikusi nauzu?

Mikelote

**Mila bider. Zoragarriak zarete,
hamalauak.**

Apostolua

Zoragarria? Hutsik nago, joder!!

Mikelote

Jakina, Oteizaren hutsunea.

Apostolua

Ba sar dezala Oteizak hutsunea kabitzen
zaion hutsunetik! Zuk erretzen duzu?

Mikelote

Beno, uztekotan nago baina...

Apostolua

Ba emaidazu zigarro bat.

Mikelote

Ondo da... (Paketea ateratzen du) **Baina...**
Nola hartuko duzu...?

Apostolua

Galdera ona! Ezin dut hartu! Ez daukat
eskurik!!!

Mikelote

Hobe, zure birikiek eskertuko dizute.

Apostolua

Ez daukat birikirik! Eta nire organu
sexualak? Aingeruek ez daukate sexurik,
baina apostoluek bai, joder!

Mikelote

LGTBI barruan denok kabitzen gara.

Apostulua

Nik normala izan nahi nuen!!!
Horregatik gustatzen zait hainbeste
zuen lana...

Mikelote

Ezagutzen gaituzu?

Apostolua

Nola ez! Euskalerriko antzezlerik kasposoenak!

Mikelote

Kasposoak?

Apostolua

Bai, eta topikoak, prebisibleak... Zoragarria.

Mikelote

Beno, nik uste dut...

Apostolua

Zure fan amorratua naiz. Gora kultura atzerakoia!!!

Mikelote

Atzerakoia? Baina nik ez dut...

Apostolua

Eta biok modernitatearen aurka gaudenez... Fabore bat eskatu nahi dizut.

Mikelote

Zer?

Apostolua

Orain ez dago inor begira. Hor daude Oteizaren tresnak. Hartu.

Mikelek mailua ateratzen du.

Mikel

Quosque Tandem!

Apostolua

Egidazu zirugia estetikoa mesedez. Michelangeloren Daviden gorputza nahi dut, pektoralak, txokolatina on bat, eta zakila... Bide batez, egin handixeagoa.

Mikelote

Baina ni ez naiz eskultorea!

Apostolua

Oteiza ere ez!!!

Mikelote

Zergatik eskatzen didazu niri?

Apostolua

Nitarra zarelako... Zuk espiritu karka daukazu, nik bezela...

Mikelote

Ez, nik artista aurrerakoi eta abangoardiakoa izan nahi dut!!! (Mailua aidean astinduta, manifako eslogana balitz bezela) Gora! Arte Modernoa!!! Gora! Arte! Modernoa!!!

Une hartan foko batek argitzen ditu biak. Poliziaren sirena entzuten da.

Apostolua

Ostia, la pasma!

Apostoluak "estatuarena" egiten du, geldi, zirkinik egin gabe.

Mikelote deskonzertaturik, mailua eskuan.

Poliziek bozgorailuetatik hitz egiten dute.

Polizia (Off)

Geldi edo tiro egingo dugu!!!

Mikelote

Ez, lasai... ez dut ezer egiteko asmorik...

Polizia 1 (Off)

Entzun dizugu! Arte modernoaren izenean estatua apurtu nahi zenuen!

Mikelote

Baina estatua hau arte modernoa da!

Polizia 1 (Off)

Hori oso eztabaidagarria da!

Polizia 2 (Off)

Frontispizio hau neofiguratibismoaren barruan sailka daiteke!

Polizia 3 (Off)

Altorrelixe klasikoaren armonia mantentzen du!

Polizia 4 (Off)

Oteizaren geroko lan esperimentalak kalifikatu daitezke modernotzat!

Polizia 1 (off)

Esferaren desokupazioaren bariante oboidea!

Polizia 2 (Off)

Diedroen oposizioa!!!

Polizia 3 (Off)

Baina hau neorrealista da!! Beraz, alztatu eskuak eta jeitsi hortik, edo tiro egingo dugu!

Mikelote

(Estatuari) **Esaiozu zeuk eskatu didazula. Esaiozu!!!**

Polizia 3 (Off)

Zer esan du? Estatuak eskatu diola?

Polizia 4 (Off)

Joder, nola dagoen patioa!

Polizia 1 (Off)

Bota arma lurrera eta jeitsi!
Tonteriarik egin gabe...

Mikelotek mailua uzten du lurrean eta eskuak askatu.

Mikelote

(Estatuari) **Baina esaiezu...**

Polizia 2 (Off)

Ixildu eta jeitsi!

Mikelote irteten hasten da.

Apostolua

(Mikeloteri) Sentitzen dut, motel... Ah, eta azkenean nire izenaz gogoratu naiz... Judas naiz!!! Zorte txarra!!!

**11 NON KONTATZEN DEN KARTZELAN EZAGUTU ZUEN PRESOAREKIN
IZANDAKO ENKONTRU MITIKOA**

Mikelote kartzelan dago.

Pantxo

Mikelote Martutenen sartu zuten.

Patioko giroa. Jendetzaren zarata, barreak, ohiuak...

Mikelote

"Din don... Martuteneko Jaun preso txit agurgarriak: Gaur arratsaldeko 8etan, kartzelako patioan, Mikelote aktore mitikoak, monologo bat eskeiniko dizue. Tabernaria! Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña. Dohainik!"

Estanpida bat entzuten da. Ate hotsak. Handik gutxira, erabateko ixiltasuna.

Mikelote

Aizue? (...) Hola? (...) Hola? (...) Beno, lasai, ziegetatik ere entzun ahalko duzue. Megafonia piztuko dut.

Mikelotek baflea pizten du.

Mikelote prestatzen da monologoa egiteko.

Mikelote

Sara! Nere bihotzeko Sara! Prestatu dizkizudan 2345 gosariak hau esateko konfiantza ematen didate...

Halako batean abots bat entzuten da. Ez dugu ikusten nondik datorren.

Presoa

Nahikoa, mesedez!!!

Mikelote gelditzen da. Moskeatuta.

Mikelote

Nor izan da?

Inork ez du erantzuten.

Mikelotek jarraitzen du antzezten.

Mikelote

**Kroasanak tostatu nahi dizkizut
osasunean eta gaixoaldian, heriotzak
banandu arte!!**

Presoa

Ixildu zaitez, mekagoen...!!!

Mikelote geratzen da berriro.

Mikelote

Nor da? Nor zara?

Presoa

(Ahopeka) "Ni ez naiz hemengoa"!

Mikelote

Non zaude?

Presoa

"Izuen gordelekuetan barrena!"

Mikelote

Nola?

Presoa

"Intxaur azal baten barruan".

Mikelote

Eh???

Presoa

Hemen, joder!!

Mikelotek bafleari buelta eman eta han ikusten du presoa, izkutatuta.

Mikelote

Baina hau ez da intxaur azala, hau bafle bat da...

Presoa

Ez dakizu metafora poetikoa zer den?

Mikelote

**Baflea... baflea... Martutene!!!
Arranopola! Sarrionandia!!!**

Presoa

Tssstttt!!! Baxuago!!!

Mikelote

Sarri zara?

Presoa

Ez, "Lagun izoztua", hara bestea!

Mikelote

Baina zer egiten duzu hemen???

Presoa

Badakizu, "Ez gara gure baitakoak."

Mikelote

Duela berrogei urte egin zenuen ihes!!!

Presoa

"Han izanik hona naiz".

Mikelote

**Aizu! Ezin duzu normal hitzegin...
Metaforarik gabe?**

Presoa

Joder... Zelako nibela euskal kulturak!
Hara, denek uste zuten alde egitea

lortu nuela. Baina txarto atera zen,
okerreko baflea eraman zuten!

Mikelote

**Eta... hor barruan zaude ordutik?
Zergatik ez zara atera?**

Presoa

Nola aterako nintzen, ba? Zuk badakizu
jendeak zelako ilusioa zeukan nire
ihesaldiarekin?

Mikelote

**Horixe! Festa izugarria izan zen!
"Sarri sarri sarri sarri...!"**

Presoa

Nola esango nien guztiei txarto atera
zela, kartzelan segitzen nuela?

Mikelote

Eta orduan Cubakoa...?

Presoa

Cubakoa inpostore bat da. Plagioa
egiten dit. Gauza bat galdetu ahal
dizut?

Mikelote

Bai!

Presoa

Ze arraio egiten ari zinen?

Mikelote

**Antzerkia. Mikelote naiz, aktore
mitikoa, euskal antzerkiaren
erreferentea.**

Presoa

Zuek euskal antzerkiaren erreferenteak?
Eta horretarako sakrifikatu dut nik
nire bizitza osoa, gure herriko
kulturaren alde???

Mikelote

Beno... ezin duzu juzgatu amaiera ikusi gabe. Jarraituko dut.

Presoa

Ez, mesedez!

Mikelote

Ohore handia izango da zure aurrean antzeztea!!!

Presoa

Ez didazu entzun...?

Mikelote.

**Sara. Nire hitzak ez baditu
Haizeak eramaten badakizu non nagoen...**

Presoa

Ez!! Ez!!!!

Mikelote

Nahi duzunean eta nahi duzunerako

Presoa baflearen barrutik ateratzen da.

Presoa

Gelditu!!! Gelditu!!!!

Foko batek Presoa argitzen du.

Polizia 1 (Off)

Geldi! Altzatu eskuak!

Presoa

Kaka zaharra...!

Presoak eskuak altzatzten ditu.

Polizia 1 (Off)

Arranopola! Hori ez al da Sarrionandia???

Polizia 2 (Off)

Sarrionandia? Nobelagilea? "Lagun izoztua"-ren egilea?

Polizia 3 (Off)

Nire ustez narrazio laburretan ematen du bere onena: "Atabala eta euria"...

Polizia 4 (Off)

Bah! Sarrionandia poeta da beste edozeren gainetik! "Marinel zaharra!"

Presoa

Beno, ni batez ere entsaioegile sentitzen naiz: "Izuen gordelekuetan barrena"...

Polizia 1, 2, 3 eta 4 (Off)

Zu ixildu!!!

Polizia

Zatoz gugana, tonteriarik egin gabe!!!

Presoa

Emango dizudan zaplastekoa... "Kolosala izango da!"

Presoa badao.

Mikelote

Beno, alde onari begiratu: ziega berean sartzan bagaituzte, nire monologo guztiak antzeztuko dizkizut: "Ni eta nire sudurra", "Kontrabaxua", "Izarretako bitakora", "Lazaroren berpizketa"... dozena pare bat

Pantxo agertzen da.

~~12 NON KONTATZEN DEN LEKEITIOKO SAN ANTOLINETAN IZANDAKO ENKONTRU SINESTEZINA (KENDUTA)~~

13. NON KONTATZEN DEN HAIZEAREN ORRAZIAREKIN IZANDAKO HIZKETALDIA

Pantxo

Udazkena zen jada. Eta oraindik antzezlan bakar bat ere egin gabe.

Mikel

**Toki aproposa behar dugulako, ene Patxo
Fidela. Gure antzerki eraberritzaileak
eszenatoki totemiko bat behar du.**

Patxo

Gughenheim!

Mikel

**Gughenheim? Bilbao??? Puppy?!?!?
Mesedez! Txillidaren Haizearen Orrazia!
Hori bai eszenatoki totemikoa eta
atmosferikoa. Goazen!**

Patxo

Txillidaren Haizearen Orrazira joan
ginen.

Mikelote

**Begira zenbat jende, Pantxo!
Antzerkia egiteko toki paregabea!**

Pantxo

Begira kartela: "Debekatuta dago
antzerkia egitea"

Mikelote

**Arrazoi gehiago gure antzerkia egiteko!
Goazen, publiko mordoa daukagu zain.**

Pantxo

Ez da publikoa, turistak dira, praka
motzetan eta sandaliekkin!

Mikelote

Ikusle guztiak dira ongi etorriak.

Pant

Baina euskeraz ere ez dakite!

Mikelote

**Entzuidazu ondo: ikusle bakar bategana,
bakar bategana iristea lortzen badugu,
ontzat emango dut ekitaldia. Ikusle
bakar bat!**

Pantxo

(Publikoari) Ez dago zereginik!

Pantxo badoa.

Turisten burrundaia entzuten da, ingelesa, frantsesa, gaztelera...

Mikelote

**Din don! Emanaldia bi minutu barru
hasiko da!!! Itzali zuen mobilak!!! Eta
gogoratu debekatuta dagoela argazkiak
edo edozein motatako grabazioak egitea.
Din don!**

Haizearen Orrazia agertzen da. Riñonera bat dauka, turistei sarrera kobratzeko.

Haizearen Orrazia

Zu, listilloa, zertan ari zara?

Mikelote

**Antzerkia egiten. Mikelote naiz, aktore
mitikoa...**

Eskua luzatzen dio baina Haizearen Orraziak jaso ez.

Haizearen Orrazia

Ez al duzu kartela ikusi?

Mikelote

Zer zara zu, polizia?

Haizearen Orrazia

Ez nauzu ezagutzen?

Kantimplora batetik ura hartu eta ahotik botatzen du haizea botatzen eta zarata egiten.

Mikelote

Haizearen Orrazia! A zelako ohorea!

Berriro eskua luzatzen dio, alferrik.

Haizearen Orrazia

Tiketa erosi duzu?

Mikelote

Ze tiket?

Haizearen Orrazia

Ez egin listoarena. Ni ikusteko tiketa.

Riñoneratik tiket takoa ateratzen du.

Haizearen Orraziak hitz egitean, tarteka, haizea botatzen du ahotik, indarrez eta zarata eginez. Bere arnasa da.

Haizearen Orrazia

Sarrera bakarra ala taldekoa? Sarrera Plus erosiz gero zarata ateratzen dut zuloetatik. Eta sarrera VIP erosiz gero, ura botatzen dut. Erabaki, azkar!

Mikelote

Tiketa??? Sarrera?? Baina zertan...? Zu arte lan bat zara!

Haizearen Orrazia

Eta?

Mikelote

Nola saltzen duzu zeure burua hain merke?

Haizearen Orrazia

Merke ez. Bost eurotan. Taldeka, hiru.

Mikelote

Txillidak ez zintuen sortu honetarako!

Haizearen Orrazia

Zuk zure gurasoek nahi zuten bidea jarraitu duzu?

Mikelote

Beno, haiek ni tabernari izatea nahi zuten, baina...

Haizearen Orrazia

Ba orduan ez niri leziorik eman.

Mikelote

**Baina ez al duzu sentitzen artearen
pozoia zure... zain... hodietan?**

Haizearen Orrazia

Beeeenoo... gaztetan ilusioa nuen. Euskal
arte eraberritzailea. Frankoren
diktaduraren kontra denak, badakizu..
Gazteak ginen, lau sosekin konformatzen
zinen, baina orain... Denak dira
gastoak, pabimentoaren konponketa,
zuloen garbiketa... Eta hemen hezetasun
handia dago, erreuma hartzen ari naiz,
eta bronkitis kronikoa, entzun...

Haizea botatzen du bortizki.

Mikelote

**Nik ere ondo bizi nahi dut, baina
duintasuna galdu gabe!**

Haizearen Orrazia

Jubilazioan pentsatu duzu?

Mikelote

Ez, baina...

Haizearen Orrazia

Ba pentsatu. Beno, kitto. Sarrera
erosi behar duzu?

Mikelote

Ez, nik...

Haizearen Orrazia

Ba orduan, aire! Eta zuek, listilloak, ilaran
jarri. Ok, listen to me. Today special offer: two for
one. Cinco euritos, chorro de agua, por dos euros más,
el chorrito más sonido ancestral, y con el Extra vip
turista, chorro de agua, sonido ancestral más himno de
la real. Me los quitan de las manos!

Mikelotek hitz egin bitartean, Haizearen Orraziak tiketak saldu eta bere "show"-a egiten du turistentzako, haizea eta ur txorrotadak botatzen.

Mikelote

(Oso triste) **Pantxo... Ene Pantxo fidela! Non zaude...? Begiratu honi. Ba al dago gauza tristeagorik? Burua galdu dudala diozu... Esaidazu: hau da burua lepoaren gainean eramatea? Hau da zentzuduna izatea? Hala bada, erotuta egon nahi dut. Eskerrak ematen dizkiot patuari, burua galtzeko ohorea eskeini didalako Orain eta beti, amen!**

14. NON KONTATZEN DEN KRITIKARIEKIN IZANDAKO ENKONTRUA

Pantxo

Azkenean ere, morala galtzen hasita zegoen! Puntilla ematea besterik ez nuen behar, etxera bueltatu ahal izateko. Eta nork dauka aktore bat guztiz deprimitzeko poterea? Antzerki kritikaria.

Pantxo-Kritikaria bihurtzen da. Amerikar marineen sargento txuskero baten itxurarekin.

Kritikaria

(Publikoari) Arratsaldeon. Pantxok eskatu dit Mikelotereri kritika kupidagabe eta krudela egiteko. Gusto handiz egingo diot. Ea niri esker antzezlan honen maila pixkat igotzen den. Ze orain arte guztiz dezepzionantea izan da. Planteamendua eskasa. Konfliktua arrunta eta prebisiblea. Eszenografia inkonsistentea. Pertsonaien karakterizazioa groteskoa eta infantila. Antzerkia eta kulturaren irudi manikeo bat eskeintzen du. Erabat preszindiblea.

Kritikariak marine kaskoa ipintzen du.

Mikelote agertzen da.

Kritikaria

Hara hara, nor daukagun hemen!
Sasiaktore baldarra! Zatoz hona,
sasiaktore baldarra!

Mikelote

Ein!

kritikaria

Badakizu nor naizen, sasiaktore
baldarra???

Mikelote

Aurpegia ezaguna egiten zait...

**Pantxo, Kritikari bat! Kritika egingo
digute.**

Kritikaria

Ez naiz kritikaria, sasiaktore
baldarra, zure amezkaiztoa naiz!!

Mikelote

Jauna, bai, jauna!

Kritikaria

Zure bizitza izorratzeko nago hemen,
zure ilusio guztiak birrintzeko, zure
ametsak desuseztatzeko, sasiaktore
baldarra!!! Gauean oheratzen zarenean
entzungo duzun azkena nire kritika
izango da, eta goizaledeko lehen orduan
irakurriko duzun lehena, nire kritika
izango da!!!

Mikelote

Jauna, bai, jauna!

Krititaria

Ez dizut entzuten sasiaktore baldarra,
egin ohiu protrorik bazenu bezela!

Mikelote

Jauna, bai jauna!!!

Krititaria

Zer daukazu poltsikoan, sasiaktore baldarra?

Mikelote

Jauna, testu bat, jauna!

Kritikaria

Testu bat??? Ze testu, sasiaktore baldarra?

Mikelote

Jauna, "Ez dok ero", Jauna!

Kritikariak testua hartzen du.

Kritikaria

Ez dok ero? Zer da ezdokero, sasiaktore baldarra?

Mikelote

Jauna, antzezten ari garena, jauna!

Kritikaria

Beraz, sasiaktore baldarrak antzezlan berri batean antzezteko gogoia dauka!

Mikelote

Jauna, bai, jauna!

Kritikaria

Eta sasiaktore baldarrak uste al du antzezteko merituak betetzen dituela?

Mikelote

Jauna, ez dakit, jauna!

Kritikaria publikoarengana doa.

Kritikaria

Sasiaktore baldarrak bere burua desonratu du eta euskal antzerkia desonratu du. Nik lagundu nahi izan nion, baina porrot egin dut! Eta porrot egin dut zuek ez didazuelako lagundu! Bere txiste baldarrekin barre egin

duzuelako! Bere emanaldiak ikustera
 etorri zaretelako! Eta orain sasiaktore
 baldarrak antzezlan berria egin nahiko
 luke! Zuen erruagatik!!! Ba begira zer
 egiten dudan nik bere testu
 berriarekin!!!

Kritikariak testua apurtzen du.

Kritikaria

(Mikeloteri) Ulertzen duzu hau zure
 mesedetan egiten dudala, sasiaktore
 baldarra?

Mikelote

Jauna, bai, jauna!

Kritikaria

Zergatik?

Mikelote

Jauna, aktore txarra naizelako, jauna!

Kritikaria

Ez, sasi aktore baldarra, ez zara
 aktore txarra. Txarra ba zara, oso
 txarra, baina aktorea ez!

Mikelote

Jauna, bai, jauna!

Kritikaria

Sudur bati pegatuta bizi den sasi
 aktorea zara, sasiaktore baldarra!!!
 Hala ere zure sudurra ez da oztopoa
 izan zure karreran: oztopoa zaure
 talenturik eza izan da. Sasi aktore
 dorpe, faltsu, histrioniko, afoniko,
 dislexiko eta afasikoa zarelako!!!

Mikelote

(Gogo biziz) **Eta aritmikoa, jauna!**

Kritikaria

(Deskonzertaturik) Eh?

Mikelote

Ahaztu zaizu, erabat aritmikoa naiz!

Kritikaria harrotasuna eta ziurtasuna galtzen ari da.

Kritikaria

Beno, ondo da. Arrit...

Mikelote

**Eta ez duzu aipatu sobreinterpretazioa,
Jauna!**

Kritikaria

Nola?

Mikelote

**Sobreinterpretatzen dut. Eta
hiperaktiboa naiz. Ez zara konturatu?
Ez dakit geldi egoten! Nabarmena da!**

Kritikaria

Ba...

Mikelote

Eta abotsaren tinmbrea?

Kritikaria

Abotsa zer?

Mikelote

**Abots zatarra daukat!!! Eta ez dakit
proiektatzen!!!**

Kritikaria

Beno, bai, baina...

Mikelote

**Eta memoria? ezin duzu imaginatu zenbat
kostatzen zaidan testu txikiena ere
buruz ikastea! Erdia inbentatu behar
izaten dut!! Eta askotan zurian
geratzen naiz eskenatokian, zer esan
jakin gabe! Eta...**

Isulune luze bat.

Mikelote

Eta...

Kritikaria

Eta zer?

Mikelote

**Eta... (...) Koño! Ahaztu zait testua!
Ikusten? Ez dakit zer esan behar dudan
orain!!! Memoria puta hau! (...) Zelako
egoera deserosoa, ezta?**

Kritikaria

Ba...

Biak isilik, publikoaren aurrean.

Tic-tac bat entzuten da. Aktoreak gero eta ezerosoago.

Azkenean Kritikariak apurtzen du.

Kritikaria

Joder, esan zerbait!

Mikelote

Jauna, ezin dut, jauna!

Kritikaria

Zergatik ez, sasiaktore baldarra?

Mikelote

**Jauna, eszena honetako testua zuk
apurtu duzulako, jauna!**

Kritikaria

Arranopola...

Kritikariak testua jasotzen du lurretik. Paper zati apurtuak hartu eta irakurtzen dituzte.

Kritikaria

(Paper zati bat irakurriz) "Sudur bati pegatuta bizi den sasi aktorea..." Ez, hori esan dugu jada.

Mikelote

(Paper zati bat irakurriz) **"Sasiaktore baldarrak bere burua desonratu du eta euskal antzerkia desonratu du..."**

Kritikaria

Hau ere esan dugu.

Mikelote

Hemen dago! Eskerrak! Hemen gelditu gara: Eta askotan zurian geratzen naiz eskenatokian, zer esan jakin gabe! Eta... ez dakit inprobisatzen!" joder, erreza zen, "ez dakit inprobisatzen."

(Kritikariari) Inprobisatzen jakingo banu ez ginатеke orain egoera honetan egongo! Eta gero esaten dut: "Arrazoi osoa duzu, kritikari jauna, sasiaktore baldar bat naiz. Asko daukat oraindik ikasteko. Begiak ireki dizkidazu. Zugatik ez balitz, ni orain galduta egongo nintzateke!"

Kritikaria

Eh?

Mikelote

(Irakurtzen jarraitzen du) Hemen dio, akotazioan, kritikaria gero eta nahastuago dago, argudiorik gabe geratuta da.

Kritikaria

Ah...

Mikelote

Eta gero nire azken parrafoa. "Mikelotek kritikaria besarkatzen du eta esaten dio:"

Mikelotek kritikaria **besarkatzen du.**

Mikelote

(Irakurriz) "Milesker, bihotzez! Zuen lana gogorra da, baina ezinbestekoa. Zuen kritikek gogortu egiten gaituzte,

eta hobeak izateko indarra ematen digute! Gora zuek!!!"

Kritikaria desarmatuta geratu da.

Mikelote

(Irakurriz) "Kritikaria badoa birrinduta, hauts eginda. Bere lanak zertarako balio duen galdetzen dio bere buruari. Eta ez zaio gustatzen bere buruak erantzuten diona. Ez dio bere bizitzari zentzurik ikusten."

Kritikaria badoa.

Mikelote

"Kritikaria desagertzen da. Offean, tiro hotsa entzuten da."

Tiro hots bat entzuten da.

Mikelote

"Mikelote, kritikak indarberriturik, badoa, antzerkia egiteko are gogo biziagoarekin."

Pantxo sartzen da, haserre.

Pantxo

Ez da hori testuak dioena!

Mikelote

Beno... Apur bat inprobisatu dut. Ez zitzaidan amaiera gustatzen...

Pantxo

Ez zait interesatzen zure iritzia!

Mikelote

Baina...

Pantxo

Irakurri eszenaren amaiera, mesedez.

Mikelotek papera hartzen du.

Mikelote

(Irakurriz) Mikelote ixilik geratu da tarte oso luze batez. Ez du testua gogoratzen. Publikoa estu eta larri dago. Mikelote larriago, zer esan jakin gabe. Azkenean, amore eman eta publikoarengana hurbiltzen da. Musika melankoliko bat entzuten da.

Musika melankolika entzuten da.

Mikelote

Eta Mikelotek dio: "Jaun andreak, errealitatea onartzeko unea heldu da. Ez naiz jada ezertarako gauza. Banoa nire etxera. Agur."

Mikelek Patxori papera eman eta badoa, buru makur. Patxoren ondoan esertzen da, baina publikoari bizkar emanaz. Patxok hitz egiten dio publikoari.

Patxo

Mikel ez da jada Mikelote Arinzanokoa, euskal teatrero andantea. Mikel orain Txanogorritxu da. Beldurrez dago. Basoan geratzen bada, otsoak jango du. Bi aukera ditu salbatzeko, etxera bueltatu ala otsoa akatu. Zentzudunena aukeratu du. Etxera bueltatu da. Ondo egin du. Nor ausartuko litzateke, ba, otsoaren kontra?

15 NON ERIETXEAN GERTATU ZEN GERTAKARI HARRIGARRIA KONTATZEN DEN

Patxo

(Publikoari) Hura izan zen bidaiaren amaiera. Orain, doktoreak, esango didazue...?

Mikel

Doktoreak? Zergatik deitzen diozu publikoari "doktoreak"?

Patxo

Doktoreak direlako! Psikiatrak! Eta hau ez da antzoki bat, hau erietxe bateko...

Mikel

Benetan ari zara? Dena sinistu duzu? Aizu, pertsonaia sartu zara guztiz, eh? Patxo, burutik erabat jota zaude!

Patxo

Nola?

Mikel

Erietxearena fikzioa da! Antzoki batean gaude! Begiratu gora! Ez al duzu tramoia ikusten? Fokoak? Banbalinak?

Patxok harrituta begiratzen du. Ez da orain arte konturatu.

Patxo

Doktoreek ipini dituzte, zuk antzoki batean zaudela pentsa dezazun.

Mikel

Doktoreek fokoak ipini dituzte? Eta tramoia guztia? Eta teloiak? Hara, zelako maila, Osakidetzak!

Patxo

Orduan... orduan... Neuk ere... neuk ere burua galdu dut? Zoratu naiz, edo aztoratu, besterendu, birloratu, gorabeheratu, liluratu, nahaspilatu, txotxatu, txunditu, zorobilatu eta zozotu!!!

Mikel

Brabo!!!! Ongi etorria zoroen mundura!

Patxo

Jakina, dena fikzioa izan da! Antzezlan bat da!

Mikel

Horixe ba!

Patxo

Aizu... eta... Nola bukatzen da antzezlan?

Mikel

Memoria kaxkarra daukat, badakizu.

Patxok gidoia hartzen du.

Patxo

Hemen! Amaiera: "On Kixote Mantxakoa bezela, gure bi protagonistak euren zoramenaz jabetu dira azkenean."

Mikel

Horixe da On Kixote nobelatik gutxien gustatzen zaidana.

Patxo

Zer?

Mikel

On Kixotek azkenean zentzumena berreskuratzea. Traizio bat iruditzen zait.

Patxo

Baina nor gara Cervantes kritikatzeko. Guk beso biak ditugu.

Mikel

Eta zer gehiago dio?

Patxo

(Irakurriz) "Patxo eta Mikel badoaz eskenatokitik duintasunez, karrera barregarri bati sikeran amaiera duina emanez."

Mikel

"Duintasunez?" Nola joaten da norbera "duintasunez"?

Patxo

Ez dakit. Guk duintasuna ez dugu askorik landu.

Mikel

Duintasuna sobrebaloratuta dago.

Patxo

Guk batez ere erridikuloa egitea landu dugu gure karrera oparoan.

Mikel

(Irriz) Bide batez... burutik pasatu zait...

Patxo

Zer?

Mikel

Ez... ahaztu... Zorakeria bat zen. Goazen duintasunez...

Patxo

Zorakeria bat? Kontatu.

Mikel

Ba, pentsatu dut... Ez, ez dauka zentzurik, erridikuloa da... Ahaztu. Goazen.

Patxo

Duintasunez?

Mikel

Jakina.

Ateratzen hasiko dira, "duintasunez". Mikel geratzen da.

Mikel

Ba pentsatu dut... "Eta gure betiko estiloan esaten badugu agur"?

Patxo

Gure betiko estilo erridikuloan?

Mikel

Bai.

Patxo

Zoratuta zaude!

Mikel

Orduan, bagoaz...?

Patxo

Zertarako joan duintasunez, barregarri geratzeko aukera baldin badugu?

Mikel

Jaun andreak, eta bukatzeko, Txanogorritxu ren ipuina, hitz guztiak a-rekin.

Patxo

Amama zaharra makala ta bakarra landan. Hartara, alaba atara da azkar azkar amamagana, kaxa bat daramala. Kaxak, jana darama.

Mikel

Salda, patata zaharra ta albakaz; Baratz lasagna aza, baba ta kalabazagaz. Rabak, kalamarrak, ganbak, txatka tabar.

Patxo

Alabak kaxa amamagana darama. Halatan basatzen, hartza!

Mikel

Hartza? (...)

Patxo

Hartz zantar ta baldarra.

Mikel

Ah...! "Kaka zaharra! Hartz zantar ta baldarra! Santa Martak anpara nazala!"

Patxo

Dama galanta basatzen, bakar bakarra?

Mikel

Hala da.

Amamagana daramat kaxa bat:

Salda patata zaharra ta albakaz;

Baratz lasagna aza, baba ta kalabazagaz.
 Rabak, kalamarrak, ganbak, txatka, tabar.
 Antzar anka, garagar saltsan.
 Txahal-falda, pasta zapalagaz.
 Gazta-tarta sagarra, anana ta mahaspasagaz.

Patxo

Alaba azkar azkar atara da amamagana, arrapataka, arnaska. Baña hartza azkar azkarra da, ta amamagana atara da arrapaladan, ta han para da. Amama salan, patsadaz. Hartzak, danba danba. "tak-tak". Amamak, alaba dala ta, altza da ta atara da baldar xamar, balantzaka... Ta hartzak amama jata jan. Hartan, alaba landan, kantan, zarataka, zalapartaka...

Mikel

Tralara, tralara, amamagana daramat jana ta pattarra.

Patxo

Hartzak amaman mantaz tapata, atara da. "Hara, laztana!".

Mikel

"Amama, kaxa bat dakart, ta kaxan, jana:
 Salda, patata zaharra ta albakaz;
 Baratz lasagna, aza baba ta kalabazagaz.
 Arraña: Rabak, kalamarrak, ganbak, txatka, arrabak, tabar.
 Antzar anka, garagar saltsan.
 Txahal-falda, pasta zapalagaz.
 Gazta-tarta, saga, anana ta mahaspasagaz.
 Ah! Ta Pattarra: Patxaran nafarra, cava katalana, txanpan gabatxa, grappa ala laranjada bat. Dan dana.

Patxo

"Hara, hara! Pasa, pasa..." Alaba
laztana pasa da apal apal, dardarka.
Zalantzatan.

Mikel

Amama, hatzapar galantak!

Amama, azal zakarra ta baltza!

Amama, antza makarra ta zantarra!

Amama zara, ala hartz baldarra?

Patxo

Ta hartz baldarrak labana atara, ta
alabanaga darama. "Hartz zantarra naz,
ja, ja, ja"

Mikel

Hartan Alabak, kaxan daraman arma bat
atara, bala bat karga, hartz
zantarragana para, ta danba danba!

Biak

Ta hala bazan, sar nazala kalabazan.

Iluna.